

BALEIKE

264. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko APIRILA

baleike.eus

SORMENA SU(E)TAN

Maria Amundarain Basque Culinary Centerren ari da ikasten. Etorkizun batean jatetxe propioa zabaldu nahi du. Hori da bere ametsa.



AEG
BITROZERAMIKA HK623021FB

242,10 €

269€ - %10 bueltan

Biak erostean:

449 €

499€ - %10 bueltan

AEG
INDUKZIOA HK633220FB

386,10 €

429€ - %10 bueltan

AEG
INDUKZIOA HK6532H2FB

404,10 €

449€ - %10 bueltan

%10

bueltatuko
dizugu AEG
markako
integrazio
guztietan

Pirolitiko

Pirolitiko

**Plussteam
bapore aukera**

242,10 €

269€ - %10 bueltan

395,10 €

439€ - %10 bueltan

449,10 €

499€ - %10 bueltan

AEG
LABEA BE3013021M

AEG
LABEA BP301302FFM

AEG
LABEA BP301352WM

BOSCH XURGAGAILUA
BBHMOVE4N

18 v

129 €

BALAY
ONTZI
GARBIGAILUA
3V5572

A++

3. bandeja

399 €

ZURIA

469 €

INOX

Oparia!



8 kg

1.200 bira/min

inverter
motorra

409 €

ZURIA

499 €

INOX

BALAY
GARBIGAILUA
3TS986

TIEN 21



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com

Gorka Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odrizola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnatz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

10
baleike +

ZUMAIAR BAT SORMENAREN SUKALDEAN

4
santelmoak
EGITARAUUA

II
herri galdeketa
MAIATZAREN 7KO
HERRI GALDEKETAZ
JAKIN BEHARREKOAK

21
elkarrizketa
IÑIGO GARCIA

26
erretratua
AINHOA URTEAGA
ETA MARIA MARTINEZ

30
agenda
APIRILA-MAIATZA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



SANTELMOAK

EGITARAUA

2017

OSTIRALA 21

22:30 Aita Marin bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Etxahun Lekue, Sustrai Colina, Agin Laburu eta Jon Maia.

Gai-jartzailea: Unai Manterola

22:30 Txosna eremuan kontzertuak: Tecno gaua

LARUNBATA 22

11:00 Udal Txistulari Bandaren kalejira

12:00 San Telmo ermita inguruan, txupinazoa jaiei hasiera emateko.

Jarraian Jaitsiera Musika Eskolako trikitilariak lagunduta Ondoren Itxas Gain elkarteak antolatuta, hamaiketako.

Tartea alaitzeko, Bertso Eskolako ikasleen eta Musika Eskolako trikitilarien saioak.

12:30 Incansables txaranga kalejiran

13:00 Ondartxon, Musika Eskolako haurren eskutik, euskal dantzen ikuskizuna. Euria eginez gero, Aita Mari aretoan.

14:30 Torreberri herri bazkaria.

17:00 Elektrotxaranga kalejiran

18:00 Eusebio Gurrutxaga plazan jaialdia haurrentzat:

Dantza Saltsa

18:30 Erriberan hasita Incansables txaranga

22:00 Txosna eremuan, kontzertuak:

Cobra, Petti & Etxeko Uzta eta Eskean Kristo

22:30 Kofradian dantzaldia: Ezten Giro

IGANDEA 23

11:00-14:00 Oxford aretoan Santelmotako XIX. Scalextric txapelketa

11:30 Ostolaza eta Txapartegi trikitilariak

11:30 Arbustain motor elkarteak antolatuta, hamaiketako herriko itsasgizon zaharrentzat.

12:00 Haurren Danborrada Sagarbide ikastetxetik irtenda. Danborradaren aitzakian Jakintza elkarteak argazki rally bat antolatu du. Begiratu oinarriak.

12:30 Trikitxas bikotearen kalejira

17:00 Udaletxetik irtenda, Buruhandi eta Erraldoiak

17:00-19:00 Oxforden Scalextric saio gehiago

18:00 Trikitxas bikotearen kalejira

18:30 Plazan hasita, Ustekabe txaranga

19:00 Eusebio Gurrutxaga plazan hasita The Derty Gerties kalejira

22:00 Txosna eremuan kontzertua: Dj Bull

22:30 Danborrada Berezia

22:30 Kofradian, dantzaldia: Ilargi Beltza

Gauerdian Kofradian Bandera igotzea Jose Luis Urruzuno arrantzale ohiaren eskutik. Txapel oroigarria oparitutako

dio Arbustain Motor elkarteak, eta Joxe Migel Irigoieni ere omenaldia egingo dio.

Danborrada amaitutakoan berbera Ilargi Beltza taldearekin Kofradiako plazan



ASTELEHENA 24, SAN TELMO EGUNA

- 10:00 Alkate-soinua udaletxe aurretik parrokiara.
- 10:15 Ohiturazko prozesioa San Telmo ermitara
- 10:30 Meza Nagusia, Beheko Plaza Abesbatzak abestua, itsasoaren aurrean otoi-tza eta Parrokiara itzulera. San Telmoren erlikia gurtzea.
- Ondoren, gonbidatuei hamaiketako eskainiko zaie Kofradian.
- 12:00 Elizagoien Ahizpak trikitilariak
- 12:30 Eusebio Gurrutxaga plazan Gorritiren saioa
- 17:00 Aitzuri pilotalekuan, esku pilota partidu profesionalak
- 17:30 Torreberrin magia ikuskizuna: Amarru
- 18:30 Plazatik abiatuta, Iraunkorrak txaranga
- 19:00 Kofradian dantzaldia: Orots
- 22:30 Kofradian Orots taldearen bigarren emanaldia

OSTIRALA 28

- 17:30 Aitzuri pilota lekuan xisterako San Telmo saria, finalak
- 18:00 Eusebio Gurrutxaga plazan Rana eta Pote txapelketak, Beheko Plaza elkarteak antolatuta (irekia nahi duen guztiarentzat)
- 19:30 Torreberrin hasita, Bertsotan Jai herriko bertsolariak
- 22:30 Txosna eremuan Bertsio Gaua herriko musika taldeekin

LARUNBATA 29

- 10:00 Eusebio Gurrutxaga plazan, XVI. olagarro-zopa lehiaketa.
- Ekitaldia alaitzeko Elustondo anai-arrebak trikitilarien saioa
- 11:30 Ondartxon haur jolasak Itxas Gain elkartearen eskutik.
- 12:00 Herriko kaleetan Beheko Plaza abesbatzen saioa
- 12:30 Odietan Urrezko Aizkora, kanporaketa
- 14:30 Txosna eremuan bazkaria
- 17:30 Eusebio Gurrutxaga plazan haurrentzat dantzaldia Joxe Mendizabalekin
- 18:30 Beti Jai Fanfarrearen saioa
- 22:00 Kofradian disko festa Alex eta Urtzarekin
- 22:30 Txosna eremuan, kontzertuak: Koban, Burning Daylight eta Dj Pintxe Pendeja

IGANDEA 30

- 9:30 Zumai Txaranga eta gatzetxo kalejira herrian zehar
- 11:30 Maddalen eta Jagoba trikitilariak
- 12:00 Itzurun hondartzan zaldi lasterketa
- 12:30 Zumai txaranga
- Eta Eusebio Gurrutxaga plazan, Erkibe elkartearen eskutik, olagarro-zopa dastatzeko aukera
- 17:00 Aita Mari aretoan, haurrentzat antzerkia: Kolore! Gari, Montxo eta Joselontxo
- 18:00 Trainerillen estropadak, XXXIV. San Telmo saria eta Emakumeen San Telmotako V. estropada.
- 18:00 Jainekin txaranga
- 19:00 Kofradian erromeria: Bidebatez
- 22:30 Txosna eremuan kontzertuak herriko taldeekin: Breaking Brokkoli, The New Brigade, Parrazta eta Sargo
- 23:00 Bidebatez taldearen bigarren saioa
- Gauerdian Bandera jaistea eta Santelmoei agurra.



Zortzi urterekin prestatu zuen bere lehen platera eta hamarkada bat geroago Basque Culinary Center sukaldaritzako unibertsitatean ikasketak egiten ari da. Sormenak, irudimenak eta hartu beharreko arriskuek berebiziko garrantzia duten mundu horretan leku bat aurkitu nahian dabil Maria Amundarain zumaiarra. Harekin egon gara sukalde kontuez hizketan.

Zazpi urte zituela, Eva Argiñanok telebista saio batean ematen zituen errezetak apuntatzen hasi zen. “Karlos Argiñano ez zait gustatzen, txisteengatik, baina Eva bai. Beti ikusten nuen bere atala. *Zurekin kozinatzen* edo antzeko izena zuen saioak eta beti norbait eramaten zuen. Txikitatik han egoten nintzen apunteak hartzen eta zortzi urterekin gurasoei esan nien nik egingo nuela bazkaria, erosketak ere bai, eta lasai joateko kalera. Esparrago batzuk prestatu nituen, ez dut gogoan zerekin, baina akordatzen naiz bi mutur ateratzen zirela gorantz”.

11 urte geroago, Maria Amundarain zumaiarra Basque Culinary Centerren (BCC) sukaldaritzako ikasketak egiten ari da. Unibertsitaterako karrera hautatu behar zenean, garbi zuen gastronomiako bidea hartu nahi zuela. “Ikusi nuenean Zumaiatik gertu zabalduko zutela, esan nuen hona etorri nahi



Maria **AMUNDARAIN**
Basque Culinary Centerreko ikaslea

Zumaiar bat **sormenaren sukaldean**

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

PLATER ZIKINAK

*Erabili ondoren harraskan
uzten diren plater
multzoaren forma du
Miramongo unibertsitateak.*

nuela. Eta, azkenean, lortu nuen”. Sukalderako zaletasun hori ez datorkio familiarik. “Ez, nire gurasoek ez dute zerikusirik sukaldearekin. Ni naiz familiariko lehena”. Maria ez da BCCn ikasten ari den zumaia bakarra: Markel Etxabe graduondoko ikasketak egiten dabil, adibidez.

Donostian, Miramonen, Aietera bidean dagoen eraikin berritzailean kokatzen da gastronomiako unibertsitate hau. Kanpoan sekulako zaparrada ari da botatzen. Maria BCCren sarreran aurkitu dugu, babesean. Zuri koloreko sukaldariaren txaketa besapean duela, eta zentroko arduradun bat alboan dugula, eraikineko sukalde batera joan gara argazkiak ateratzera. Gazte taldea dago barruan: batzuk urdaiazpikoa ari dira moztzen; beste batzuk gauean zerbitzatuko duten afariko platerak prestatzen. Gizonezkoak dira gehienak. “Gure kurtsoan ez horrenbeste, baina, bai, beste kurtsoetan mutil gehiago dago”, esango digu geroago.

Etxeko sukaldeetan emakumeek agindu izan dute historian zehar; jattetxe handietan, baina, gizonezkoak dira nagusi. Hala dira chef ezagunenak. Sukalderitza, maila gorenetan, behintzat, gizonezkoen kontua al da? Mariak uste du zaila dela jattetxe batek eskatzen duen dedikazioa eta bizitza pribatua/familia giroa bateratzea, eta are zailagoa emakume barentzat. “Sukalde batean ez zara zortzi orduko lanaldian egongo. Batzuetan 16 ordu ere egon behar duzu eta aldi berean lan hau egitea eta familia zaintzea errazagoa da gizonezkoentzat emakumezkoentzat baino. Ez dut esaten gizonezkoek ez dutenik etxean lan egin behar edo haurrak zaindu behar. Inola ere ez dut hori esaten, baina haurrak badituzu, sukaldetik errazago botako dute emakumezkoa gizonezkoa baino”.

“Nire jattetxean
bietetik egingo
nuke: parrila, baina
imajinazio eta arrisku
pixka batekin. Ez
nuke nahiko betiko
erretegia izatea”



Sukaldean sartzeko bata zuria jantzi behar izan dugu, laboratorioro batean egongo bagina bezala. Argazkiak atera ondoren, zentroko korridoreetan barrena ibili gara solasaldia izateko txoko bat aurkitu arte. Jantzi behar izan ditugun bata oraindik gogoan, esan diogu gaur egun sukaldaritzan erabiltzen diren zenbait teknika laboratoriorakoak diruditela. “Nik etxean baditut halako gauzak! Asko gustatzen zaizkit, baina muturreraino eramane gabe”, dio irribarretsu.

Sukaldaritzan sormenak eta imajinazioak beti izan dute garrantzia eta BCC bezalako zentroek ideia horiek indartu egiten dituzte. Sarrerako proban ere hautagaiek irudimena azaldu behar izan zuten. “Larunbata zen eta jende pilo bat zegoen. Taldea hartu gintuzten. Hasieran, irudimen eta sormen proba bat pasa behar izan genuen. Hasteko, osagai bat sortu behar izan genuen, gero osagai guztiakin plater bat sortu eta amaieran plater hori interpretatu. Baina hori guztia plastilinarekin. Gero test psikologiko bat pasa genuen nolakoak ginen jakin zezaten”.

Hautagai asko izan zirela du gogoan. “Donostian bi deialdi egin ziren eta Madrilen beste bi. Horietatik, ehun pertsona aukeratu zituzten. Kristoren poza izan nuen; niretzat utopia zen hemen sartzea eta lortu nuen”.

Gastronomiari lotutako unibertsitatea bada ere, sukaldearekin agian zerikusirik ez duten irakasgaiak ere izaten dituzte. “Biologia, psikologia, komunikazioa, estatistika, informatika... Azkenean, hemendik aterata sukaldari egin dezakezu lan, edo kritiko gastronomiko, edo jattetxe bat zabalatzeko gai izango zara. Baita sukaldaritzarekin loturarik ez duten lekuetan lan egiteko ere”.

Karrerak lau urte irauten du eta bigarrenengoan dago gaur egun. Lehen urtekoei gai batzuetan erakusten aritzen dira orain. “Hirugarren urtean salako jefebihurtuko gara. Gero, adar batean espezializatzeko aukera izango dugu: abangoardia, gestioa edo enpresa. Nik abangoardia aukeratuko dut, horretarako sartu nintzen eta horrekin jarraituko dut”. Ametsa etorkizun batean jattetxe propioa zabaltea du. “Hemendik ez naiz aterako dena jakinda. Praktiketara urte batzuk pasa eta, 30-40 urterekin, dirua banu, jattetxe bat zabaldu nahiko nuke”.

Arrainak izango luke protagonismoa jattetxe horretan. “Arraina gustatzen zait, ez naiz batera haragizalea. Praktiketara nahita ekartzen zidaten garbitu gabeko arraina. Nik garbitzen nituen, hala nahi nuelako”. Eta nolako izango litzateke jattetxe hori? Abangoardiakoa edo tradizionala? “Biak gustatzen zaizkit. Nire jattetxean bietetatik egingo nuke: parrila, baina imajinazio eta arrisku pixka batekin. Ez nuke nahiko betiko erretegia izatea”.

Gelako irakasgaiez eta sukaldeko praktikez gain, zenbait erronka bete behar izaten dituzte. “Chefeekin koinatzen izeneko ekitaldi bat egin genuen. Gasteizeko sukaldari bat bi-



sitatu genuen eta orain lagun batzuk Kataluniara joan dira. Jatetxe horiek bisitatzen ditugu, baita horietan jan ere. Gero, jatetxe horietako kideak Donostiara etortzen dira eta esperientzia haietan oinarritutako jatordu bat eskaini behar izaten diegu”. Presiorik izango ote dute etorkizuneko sukaldariek? “Pixka bat bai”.

2016. urte amaieran antolatutako lehiaketa baten bidez izan genuen Mariaren berri. Cinco jotas urdaiazpiko batekin plater bat sortu behar zuen. “Errezeta egin, etxean prestatu eta, ondoren, argazkia bidali behar genuen. Gero, errezetarekin istorio baten antzekoa prestatu genuen. Nik hamburgesa bat proposatu nuen”. Cinco jotas urdaiazpiko onenatariko bat da. Ez al da sakrilegioa jaki honekin hamburgesa bat egitea? “Askok esan zidaten hori! Laguntzeko proposatu nion batek esan zidan: ‘Maria, nik ez dut Cinco jotas bat horrela moztuko’. Baina ez zuen urdaiazpikoa bakarrik; azpizuna ere bazeukan”.

Lehiaketara aurkeztutako hamar plater onenak aukeratu zituen unibertsitateak eta horietatik Cinco jotas etxekoek bost onenak hautatu zituzten. Horien artean zegoen Mariaren hamburgesa. 55 pertsonarentzako afaria prestatu behar izan zuten bost finalistek. “Pedro Subijana sukaldaria eta enpresako kide batzuk etorri ziren. Irabazleak 4.500 euro irabazi zituen, matrikula erdia. Aparte, urdaiazpiko bat eman ziguten. Guk ez genuen irabazi; ez genuen ezer espero, beraz, ondo egon zen”.

Beste lehiaketa bat izango dute apiril honetan bertan. “Azpilicueta ardoekin *maridaje* bat egingo dugu. Nik ardo zuri bat aukeratu dut, eta horrekin hasierako bat egin beharko dut. Ardoa bihar emango didate [martxoaren 22an egin genuen elkarrizketa] eta harekin hasiko naiz plater hori prestatzen”.

Laburrean

Plater gogokoena? Ez dut plater faboritorik... Txipiroiak tintan edo parrilan ondo egindako arrain bat.

Gutxien gustatzen zaizuna? Ilarrak dituen edozer. Ezin dut jasan. Ez badago ezer jateko, jango dut, baina bestela ez. Txikitako trauma bat da. Eskolan, jangelan, behin gaitzki atera ziguten eta ordutik ezin dut jasan.

Sukaldari gogokoena? Eva Argiñano.

Norekin egin nahiko zenuke lan? Dabiz Muñozekin edo Angel Leonekin. Lehena, presioagatik eta bigarrena arraina prestatzeko erarengatik.

Teoriak ezer gutxirako balio du praktkarik gabe, eta sukaldaritzaz bezalako mundu batean are eta gutxiago. Gaur egun Zumaiako Basusta jatetxean dabil salako jefe eta uda garaian praktikak egiteko lekua zehaztu nahian dabil. “Iaz Marbellan egon nintzen. Unibertsitateak hilabete egotera behartzen ninduen eta hiru hilabete egon nintzen. Aurten Galiziara joan nahi dut, arraina nola prestatzen duten ikustera, gehienbat”.

Modan dago sukaldaritzaz. Maila goreneko sukaldariak agintarien moduan hartzen dituzte leku askotan eta chef hauetako batzuek telebistako saioretan edo lehiaketetan hartzen dute parte epaile edo gidari lanetan. Nola ikusten ditu Mariak saio horiek? “*Master chef* ikusi genuen eta ez da sukalde batean bizi dugunaren isla. Presioa badago, baina ez hor ikusten dena bezalako”. ■



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152

LIBRURU DENDA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel: 943 543 164
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel. 943 882 532
Aroztegia: Santiago, 40 Tel. 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Artupe

Nazkari 2 • Tel. 943 801 901
ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943 861 485

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea
elena@ricardoazkue.com

tel. 615 793 406 / 943 862 651
fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

Sari Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa: 943 148 306
bakun@euskainet.net



Basodi
albaitaritza

Ribaitorio
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basodi.com
www.basodi.com

Golez: 11-13 / Arrabaldok: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itabi
Lantekidetsako: 605 728 737 Etkez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxika Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

“Nahi al duzu izan euskal estatu burujabe bateko herritar?” galderari erantzuteko aukera izango dute zumaiarrek maiatzaren 7ko herri galdeketa. Galdeketa buruz jakin beharrekoak daukazue hemen azalduta, puntuz puntu.

IKER AIZPURUA TELLERIA



HERRI GALDEKETA

Maiatzaren 7ko herri galdeketa jakin beharrekoak

Galdeketa zertarako?

Herritarrok lau urtean behin gure ordezkariei hautatzea baino gehiago eskatzen dugu. Zenbait auzo herri bilakatzeko, zezenketen etorkizuna erabakitzeko... galdeketa egiten badira, nola ez ditugu egingo gure herriaren etorkizuna eta antolaketa politikoa erabakitzeko?

Herri galdeketa honekin...

- Demokrazian sakonduko dugu.
- Herritarrok ahaldundu egingo gara.
- Herritarrok gure etorkizuna erabakiko dugu.
- Erabakiak elkarrekin hartuz, bizikidetzan landuko dugu.

Zergatik bozkatu?

Galdeketa hau ez da loteslea juridikoki. Hala ere, balio handikoa da, bai sinbolikoki, baita praktikan ere. Galdeketa ondorio positiboak izango ditu gizartearen.

Emaitza edozein dela ere, erabakia elkarrekin hartuko dugunez, komunitatea zatitu beharrean, batu eta sendotu egingo dugu, eta bidea irekiko diogu eztabaida askeari zein erabakiari.

Etorkizunean herri honetan antolatuko den kontsulta lotesle eta erabakigarriari zilegitasuna eman eta prozesua azkartu egingo du galdeketa honek.

Galdera eta aukerako erantzunak

Urola Kosta osoko galdera bera izango dugu Zumaian: *Nahi al duzu izan euskal estatu burujabe bateko herritar?* Aukerak hauek dira: *bai, ez edo zuri*. Baietak eta ezetak papeleta bana izango dute.

Hautesle kopurua, hauteslekuak eta ordutegia

Maiatzaren 7an 8.140 zumaierrek izango dugu bozkatzeko aukera. Bozka lekuak 09:00etatik 20:00ak arte egongo dira zabalik, hiru leku hauetan:
 -Beheko plaza [3 mahai]
 -Institutu alboko plazatxoa (Alaiko Eroski aurrekoa) [2 mahai]
 -Oikiako plaza [1 mahai]
 Herritarrek nahi duten bozka lekura joateko aukera izango dute.

Nork eman dezake botoa?

Zumaian erroldatua egon eta 2017ko maiatzaren 7an 16 urte edo gehiago dituen orok, bere nortasuna, adina eta bizilekua egiaztatzen baditu.

Nola egiaztatu hautesleen nortasuna, bizilekua eta adina?

Galdeketa honetan ez dugunez Estatuko nahiz herriko erroldarik erabiliko, sistema informatiko bat erabiliko dugu pertsona batek bi aldez bozkatzen ez duela bermatzeko. Sistema informatiko horrek agiri identifikatzailearen zenbakia baino ez du erregistratuko.

Agiri identifikatzailea

-NANean Zumaiaiko helbidea baduzu, NANA nahikoa.
 -Euskal Herriko EHNA + errolda agiria (NAN zenbakiarekin).
 -Gida baimena edo pasaporte + errolda agiria
 (Agiri eta dokumentu bidez, adina eta bizitokia frogatu beharko da, baita NAN zenbakia azaldu ere, hori erabiliko baita erregistro egiteko. Horiek dira bozkatzeko beharrezkoak ditugun datuak).
 -Espainiar estatuak herritartzat hartzen ez dituen pertsonen Osakidetzako txartela + errolda agiria + argazkidun dokumentu ofizialen bat (pasaporte, NIEa, gida baimena...). (Erregistroko Osakidetzako zenbakia erabiliko da).
 Ohar garrantzitsua: gogoratu galdeketa eguna, maiatzak 7, igandea dela; beraz, udaletxea itxita egongo da. Errolda behar izanez gero, aurrez eskuratu beharko duzue.
 KONTUZ: agiriak originalak izan behar dute. Ez da fotokopiarik onartuko.

Hauteslekuak

Mahaiaik 07:30ean osatuko dira eta mahai bakoitzean gutxienez hiru lagun egongo dira: mahaiburua + 2 mahaikide. Jarraipen Batzordeko kideak ere mahaietan egongo dira. Bozka lekuek boto emaileentzat gune bat izango dute, nahi badute, inork ikusi gabe, gutun azalean beren aukerako boto papera sartzeko.

Nola eskuratu boto paperak

-Zumaiaiko etxe guztietara banatuko dira boto paperak eta gutun azalak.
 -Hauteslekuetan ere egongo dira boto paperak eta gutun azalak.

Bozka aurreratua

Galdeketa aurretik, ondorengo egun eta ordutegietan bozkatzeko aukera izango da ONTZIRATUren lokalean (Aita Mari auzategia, 10, behea).
 -Apirilak 12 (18:00-20:00)
 -Apirilak 13 (11:00-13:00)
 -Apirilak 21 (18:00-20:00)
 -Apirilak 22 (11:00-13:00)
 -Apirilak 28 (18:00-20:00)
 -Apirilak 29 (11:00-13:00)



Berme Batzordea eta Begirale Batzordea

Galdeketa antolaketa eta jarduera guztiak juridikoki bermatuak egongo dira maiatzaren 7an, baita bozka aurreratuan ere. Galdeketa protokoloak jasotzen dituen baldintzak beteko direla ziurtatzeko, berme batzorde bat izango da. Hauek dira Zumaiaiko Berme Batzordeko kideak:
 -Montse Atxega
 -Lucia Arzuaga
 -Miguel Angel Aperribai
 -Iñaki Agirrezabalaga
 Begirale Batzordearen eginkizun nagusia, berriz, hau izango da: ziurtatzea eta egiaztatzea Zumaiaiko galdeketa herri galdeketei aplikatzen zaizkien estandar orokorren arabera egin dela. Begirale Batzordea osatzen gabiltza.

Parte hartzearen datuak eta emaitzak

Parte hartzearen aurreneko datuak 12:30ean izango ditugu; bigarrenak, 17:00etan; eta 20:00etan, bozka lekuak itxtean, egun osoko parte hartzearen datua. Emaitzak, berriz, botoak zenbatu bezain laster jakinaraziko ditugu sare sozialen zein BALEIKERen bitartez (www.baleike.eus). Boto zenbaketa publikoa izango da, eta edonork ikusteko aukera izango du.

Festa eta ospakizunak

Garrantzi eta esanahi handiko eguna izango da, eta lanari arduraz eta seriotasun handiz helduko diogu. Aurrez dena lotzen ari gara, eta antolaketa zorrotza izango da. Hala ere, nola ez, festa eta ospakizun handiko eguna izango da! Goizetik hasita herria musikaz, jolasez, alaitasunez eta parte hartzeaz beteko da. Dantzatze, abesteko, marrazteko ..., jateko eta edateko aukerarik ez da faltako. Beraz, presta zaitezte horretarako ere.

Festa gune nagusia Beheko plazan izango da, bertan jarriko baita bozka leku bat. Hala ere, herriko beste bozka lekuan ere (Alaiko Eroskiren aurreko plazan) izango da festarako tarterik. Guztiotzat egun handia izatea nahiko genuke, hori ere gure esku dago eta.

Herri galdeketa **argituz**

JOSE CASTILLO

Maiatzaren 7an, 16 urtetik gorako zumaiar guztiak Ontziratuk antolatuko duen herri galdeketa parte hartzea deituak daude. Honako galdera honi erantzun beharko diote boz emaleek: “Nahi al duzu izan Euskal Estatu burujabe bateko herritar?”. Noski, halako ezohiko galdeketa garrantzitsu baten aurrean, ohikoa da herritarren artean kezka, aurreiritziak eta zalantza sortzea. Jarraian, orain arte Gure Esku Dagoren babespean egin diren galdeketa sortu diren beldur nagusiak argitzen saiatuko gara.

“Galdeketa soilik abertzaleen kontua da”. Inondik inora ere ez, galdeketa honetan parte hartzeko ez zaio inori bere nazio sentimendua adieraz dezan eskatuko. Hau herritarrek ahalduz, hau da, herri burujabetzan sakontzeko ariketa demokratikoa da. Herri honek urte luzez bizi izan duen gatazka nagusia lurraldetasun azia izan da. Bestela esanda, Euskal Herriak edo Euskadik, gustukoen duzuen, estatu independente bat izan edo Espainiako Estatu parte izaten jarraitu behar duen. Bada, galdeketa herritarrek auzi honen inguruan libreki erabaki dezaten ahalbidetuko du, bakoitzak bere iritzia eman ahal dezan.

Kultura demokratikoa zabaltzea da gure helburua. Herri honen etorkizuna ez da Madrilgo edota Gasteizko bulegoetan erabakiko, herritar guztiak boz batekin eta hauteskontzi baten aurrean erabakiko dute.

“Galdeketa juridikoki legala ez denez, ez du ezertarako balio”. Egun normalizat jotzen ditugun eskubide asko eta asko duela ez hainbeste urte legalitateak ez zituen onartzen. Adibide garbi bat jartzeagatik, emakumezkoek ez zuten boto eskubidea izan XX. mendera arte. Eskubideak ez dira onartzen legeak sortzen dituelako, eskubideak herritarrek aurrera eramaten dituztenean sortzen dira. Ezinezkoa litzateke pentsatzea, adibidez, greba eskubidea eta manifestazio eskubidea egun legeak jasotako eskubideak izango zirenik, aurretik eskubide hauek “ilegalki” antolatu zituzten herritarrek egon ez balira.



Galdeketa honetan parte hartzeko ez zaio inori bere nazio sentimendua adieraz dezan eskatuko

Erabakitze eskubidearekin gauza bera gertatzen da. Kontua ez da lege batean idatzirik dagoen ala ez, herritarrok antolatuz eta erabakia gauzatuz lortuko dugu erabakitze eskubidea legean jasotzea. Gogoratu: etorkizunean herri honek bere etorkizuna erabakitze erreferendum lotesle bat baldin badu, hori ezingo da ulertu aurretik antolatu ziren ehunka herri galdeketa gabe.

“Hauteskundeetan lau urtean behin nahikoa erabakitzen dugu; beraz, galdeketa hau ez da beharrezkoa”. Lau urtetik behin gure ideologiarekin edota gustu politikoekin bat datorren alderdi bati bozka emateko aukera dugu, bai. Baina demokrazia ordezkatzailerak bere mugak ditu. Gure eguneroko bizitzan eragina duten zenbat erabaki hartzen dira inongo legebiltzarretik pasa gabe:

fabriken itxiera, murrizketa sozialak...

Egun bizi dugun egoera politikoan, erabakitze ahalmena estatuz gaindiko merkataritza erakunde eta multinazional handien esku geratu da. Testuinguru horretan, herri galdeketa bat antolatzea herri honi eragiten dion arazo bat konpondu ahal izateko, egoera horren aurka oihu sendo bat bidaltzea da: herritar burujabeak gara eta eragiten diguten gaien inguruan erabakitze eskubide guztia dugu. Beraz: “Nahi al duzu izan Euskal Estatu burujabe bateko herritar?”.

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantzialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara

MÁSMÓV.L



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mondaroz murrhela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 300

Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057

Garaa



Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Zapaia

Aldekoa

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Inkesta

Udal ordezkariak

Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea duela uste al duzu?

Oier Korta (Alkatea, EAJ-PNV): Bai.

Alex Oliden (Zinegotzia, EH Bildu): Galdera erretorikoa iruditzen zait. Euskal Herriak historikoki bere burua herri-tzat eta subjektu politikotzat duen jendartea da, nazioa da, eskubide nazionalak dagozkio eta horien artean etorkizunari buruz erabakiak hartzeko eskubidea, noski.

Arritxu Marañon (Zinegotzia- PSE-EE): Galdera hau gai-zki planteatuta dagoela uste dut. Euskal Herria kontzeptua errealitate sozial, kultural bat bezala ulertzen dut, hizkuntza komun batekin, partekatzen ditugun tradizioekin eta abar. Hori guztiak espazio komun batean partekatzen ditugu, zazpi lurralde desberdin barnean hartzen dituen espazio batean, bi estatu desberdini dagozkienak, kontuan hartuta, gainera, horietako batek bi autonomia erkidego hartzen dituela barnean.

Hau da maiatzaren 7an egiten den galdera: Euskal Estatu Subirano bateko herritarra izan nahi duzu? Eta nik galdetzen dut: zertaz ari gara zehazki? Orain EAE itxuratzen duten hiru lurraldeek osatutako estatu batez edo batzuek Euskal Herri-tzat hartzen dituzten zazpi lurraldeez? Jakin beharko genuke zer izan nahi duten nafarrek, zer izan nahi duten Frantziako Estatu hiru lurraldeek, eta azkenik zer nahi duen EAEk, orain erkidego den hau osatzen duten hiru lurraldeetako jendeak.

Kontsultaren galderak ez du argitzen zertaz ari garen hizketan, ezta nola gauzatuko dugun ere.

Zer iritzi daukazu maiatzaren 7an Zumaian egingo den herri galdeketaren inguruan?

Oier Korta: Herri mugimendu batetik sortutako ekimena da eta ni beti izan naiz herriaren eta herriak erabakitzeke dituen eskubideak aldarrikatzearen aldekoa, betiere, horretarako herriak bere

indarrak elkartu eta zilezko bide zuzenak jorratzen baditu. Hau da, nire ustetan, guztion arteko elkarlanak egingo du posible galdeketa honen funtsa errealitate bilakatzera bideratzea.

Alex Oliden: Herritarrek iritzia ematea, gaia edozein izanda, positiboa da. Beste gai askotara zabaldu beharko litzatekeen ariketa iruditzen zait. Baina ez da iritzia ematea bakarrik; baita ere, elkarrekin egotea, elkar ezagutzea, bestea errekonozitzea, besteen iritzia kontuan hartu eta besteen lekuan jartzea... Galdeketak hori dena dakar. Gizakion izaera sozialean sakontzea dela iruditzen zait, eta hori oso positiboa da. Bestetik, eskubide formalen eta errealean artean distantzia handiegia dago, eta horrelako ariketek balio dute distantziak murrizteko eta demokrazian sakontzeko.

Arritxu Marañon: Nire ustez galdera honi lehenbiziko galderan adierazi dudanarekin erantzuten zaio, neurri batean; baina erantzunean sakondu beharra dagoela uste dut, eta "erabakitzeke eskubidetzat" orain ezagutzen dugun horretaz ari gara. Alderdi horretan, hain zuzen, ados ez nagoen fundamendazio sasijuridiko batez hizketan ari garela esango nuke. PSE-EEren iritzia da baldin eta indar politikoren batek eskatzen badu, gure ordenamendu juridikoan bide legal bat barneratzea horrela Espainiako Estatu erkidego bat banandu ahal izateko eta bereizitako Estatu bat eratzeko, modu ireki eta argi batean erakutsi behar dio asmo hori gizarteari, ihesbide terminologikorik gabe.

Laburbilduz, juridikoki ez da existitzen "erabakitzeke eskubiderik". Irudi faltsu bat sortzea dakar benetan aintzatesten den eskubide bat balitz bezala horretaz hitz egiteak, eta iruzurkeriaz erabiltzen da politikoki, Espainiako sistema kons-



tituzionalak ordenamendu juridikoan existitzen den zerbaite uko egiten diola transmititzeko. Ikuspegi demokratikotik onartezina da halako joko batean aritzea.

Autonomia erkidego batek kontsulta erreferendum bat deitu ahal izatea baldin bada aldarrikatzen dena, halakorik egiten duenak dagozkion erreformak proposatu behar ditu Konstituzioan edo estatutuetan erreferendum hori gauzatu ahal izateko. Hori, ordea, oraingo legedia egokitzetik hasita egin daiteke bakarrik, eta bere erreforma prozeduretatik abiatuta. Gernikako Estatutua eguneratu eta hobetzearen alde gaudegu, Legebiltzarraren Autogobernu Ponentziaren barruan Gernikako Estatutua ebaluatu eta eguneratzeko egin izan ditugun ekarpenetan eta burutazioetan islatu dugun bezala, horrela, adostasunetik, Estatutu moderno eta integral bat lortzeko, herritarren berrespena eskatuko lukeena, duela 36 urte halakorik egiteko aukerarik izan ez zutenak barne hartuta, eta inguratzen gaituen errealitatera Euskadi egokitzea ahalbidetuko lukeena.

Hala eta guztiz ere, eztabaida ordenatu eta emankor bati heltzeko eskakizun bat izan daiteke eztabaida hori proposamen egituratu batean oinarrituta aurrera eramatea, Eusko Jaur-laritzari aurkeztea dagokion proposamena, alegia, behin eta berriro eskatu izan dugun bezala.

Parte hartuko al duzu? Zergatik?

Oier Korta: Bai, esan bezala, herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duelako eta eskubide hori gure printzipio ukazina delako. Zenbat eta lagun gehiagok parte hartu, orduan eta indartsuagoa izango da gure mezua, gure helburua.

Alex Oliden: Parte hartuko dut, noski, eta, gainera, baietzarekin. Gure arazoak konpontzeko eta gure interesak defenditzeko modurik aproposena iruditzen zait burujabetzaren bidea. Munduak dauzkan arazoei begira ere bai. Uste dut arazoei irtenbidea aurkitzeko biderik egokiena dela jendeari galdetzea, jendeak hausnartzea arazoen inguruan, eta erantzuna denon artean erabakitzea.

Arritxu Marañon: Logikoki, aurreneko bi galderetan eman dudan erantzunaren arabera eta koherentziagatik, ez.

Onurarik ekarriko al du herri galdeketak?

Oier Korta: Epe laburrean onurak ekarriko dituen ala ez, ez dakit, hori ikusteke dago. Baina ziur naiz herriaren erabakitzeko eskubidea aditzera emango dela eta hori, bere horretan, onura bat eta aurrera pauso bat da guztiontzat.

Alex Oliden: Onurak dagoeneko ikusten ari gara. Jendea elkartzen ari da, adin eta pentsaera ezberdinekoak. Elkar ezagutzen ari gara, eztabaidatzen burujabetzaren inguruan, eta ekimen bateratuak hartzen. Bidea egitea da garrantzitsua, onura handiak ekartzen dizkio gizarteari.

Arritxu Marañon: Nire ustez ez du onurarik ekarriko guztia nola planteatuta dagoen ikusita; nahasmena besterik ez du ekarriko, eta frustrazioa ere bai, beharbada.

Herritarrek nahikoa erabakitze ahalmen al dute?

Oier Korta: Noski baietz. Erabakitzeko ahalmen edo eskubide hori ukazina izateaz gain, nahikoa da. Edo hala beharko luke izan, behintzat. Beste gauza bat da ahalmen horretatik eratorritako emaitzak gauzagarriak izango diren ala ez. Edo aurrera eramaten utziko diguten ala ez.

Alex Oliden: Munduan eta historian badaude adibideak estatua lortu eta, hala ere, erabakitzeko ahalmenik ez izatea. Burujabetza soilak ez du bermatzen herriaren interesak defenditzea. Nik hor eskubide sozialak sartzen ditut. Ez dago eskubide nazionalik eskubide sozialik gabe, eta ez dago eskubide sozialik eskubide nazionalik gabe. Mundua dagoen bidegurutzean, jendeak erabakietan parte hartzeko guneak zabaltzen baditugu, hortik etorriko dira irtenbide eraginkorrenak. Kolektiboki hausnartu, kolektiboki erabaki.

Arritxu Marañon: Herritarrek erabakitzeko ahalmena dute kompetentzien inguruan; sistema demokratikoaren barruan legalki esleitutako kompetentziak dira, eta politikoki herritarrek ia egunero erabiltzen duten eskubidea da, gainera. Beren gobernatzaileak aukeratzeko, legeak aldatzeko, fiskalitatea, hezkuntza, osasun zerbitzuak eta beste hainbat gai definitzeko. Eskubide hori finkatutako bide eta prozedura demokratikoei jarraituz erabiltzen dute. Kasu gehienetan, zeharka, ordezkarri hautetsien bitartez, eta aparteko zirkunstantzietan, zuzenean esku hartuz, erreferendum bidez (kontsulta erreferenduma edo berrespen erreferenduma izan daitekeena) edo beste partaidetza bide batzuen bitartez.



Inkesta

Herritarrak

Galderak:

- 1- Zergatik Euskal Herriko etorkizuna erabakitzeke herri galdeketaaren alde egin?
- 2- Zer onura ekarriko dio Zumaia herriari galdeketa?
- 3- Zer arrazoi emango zenieke galdeketa parte hartzeko asmorik ez duten edo zalantzan dauden herritarrei?
- 4- Zure ustez, nahikoa erabakitze ahalmen al dute herritarrek?



Ismael Manterolaren erantzunak

- 1- Herri batek bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea duela iruditzen zait. Herri galdeketa baten bidez jendearen iritzia ezagutu daiteke, eta eskubideei buruz hitz egiten dugunean, beharrezkoa da jakitea. Gauden marko politikoa, bi estatutan banatutako herria gara; batzuek horrela jarraitu nahi dute, baina beste batzuek ez. Herri galdeketa bidez inoiz galdetu ez den zerbait galdetuko zaigu eta horregatik bakarrik, galdetze hutsarekin, asko izango da.
- 2- Zumaia bezalako herri batean ez gaude ohituta herritarren iritzia zein den galdetzera. Horrelako ariketa baten bidez, parte hartze ariketa ohiko bihurtzea izango da ekarpenik handiena.
- 3- Beti bezala, jende askok ez du parte hartuko, ez zaiolako herritar sentitzea interesatzen. Demokraziaren lehen ariketa parte hartzea da. Jendeak iritzia eman behar du, bestela zaila da gizartea elkarrekin eraikitzea. Gainera, parte hartzearekin ezin da inoren iritzia ordezkatu.
- 4- Daukagun gizartean erabakitzeke ahalmen txikia daukagu. Alde batetik, gai ekonomikotan sistema global baten barruan gaude eta zaila da guk zerbait erabakitzea. Bestalde, sistema politikoa ekonomia horri erantzuteko eraikita dago, eta, beraz, ez zaigu parte hartzea eskatzen. Lau urtetik behin botoa ematera deitzen digute, baina gai asko daude jendearen parte hartzea eskatzen dutenak, eta horretarako ez da hainbesteko aukera ematen. Jendea horretara ohitu da, eta gustura dago politika profesionalarekin, baina politika guztion artean egiten duguna da edo ez da.



Esti Curielen erantzunak

- 1- Herri demokratiko batean bizi garelako. Beraz, herrian eztabaida sortzen duen gai garrantzitsu bat badago, nola jakin gehiengoak zer nahi duen? Galdeketa eginda.
- 2- 16 urte nituenean andereño batek erakutsi zigun bozketaren beharra eta gure aurrekoek bozkatu ahal izateko borrokatu behar izan zutena. Beraz, herri galdeketa parte hartzeak gai honi buruz dugun kezka azaleratuko du.
- 3- Gure etorkizuna nolakoa izango den, nork aginduko duen edo zer politika mota erabakitzeko, beharrezkoa da bozkatzea joatea. Etxean geratu eta ondoren kexatzen ibiltzeak ez du ezertan laguntzen, zure iritzia emateko lekua bozka da, horixe da uzten duguten tarte txikia.
- 4- Ez dut uste oraindik ere erabakitzeke ahalmen handia dugunik herritarrok, horregatik bultzatu behar ditugu ekimen hauek, eta parte hartu. Galdeketa gehiengoak zer erantzuten duen, garrantzitsua da, noski, baina partaidetza altua izatea eta ahalik eta jende gehienak parte hartzea garrantzitsuagoa iruditzen zait.

Joseba Ossaren erantzunak


- 1- Arrazoi askorengatik, baina azpimarratzekotan, hauengatik: kultura demokratikoa sakontzen laguntzen duelako eta justizia egiteko modurik egokiena delako.
- 2- Ariketa demokratiko sano bat egiteaz gain, euskaldunon artean nagusi diren korrante nagusiak (EAJk eta EHBilduk ordezkatzeko dituztenak) elkarlanean jartzea. Hori oso polita eta beharrezkoa iruditzen zait.

3- Nagikeria ez da ona. Parte hartzeko ariketa guztiak dira osasungarriak, eta hau ere bai. Itxaropena pizten lagun dezake. Gure arteko harremanak hobetzen ere bai...


Arrazoi asko daude animatzeko!

4- Bai eta ez. Gai hau korapilatsua iruditzen zait. Batzuetan gutxiegi dugu. Baina gertatzen da kontrakoa ere: herritarrei zenbait prozesutan parte hartzeko aukera eman, eta oso gutxik parte hartzea. Iruditzen zait ezin dugula herritarra idealizatu. Ezta parte hartzeko prozesuak ere. Ez dira panazeak. Bestetik, erraz manipulatu ohi dugu "herritarren erabakitze eskubidea". Hau da, guri interesatzen zaigunean, gure helburuak lortzeko, herritarren parte-hartzea bultzatu eta erabili. Baina kontrakoa denean, ez. Eta hor oso kontu handiz ibili behar dela iruditzen zait.

Azkenik, badira zenbait gai ezin direnak herritarren esku utzi, gizakiok berezkoa baitugu geure interesen alde egitea. Eta kolektibitatearen ongia lortu nahi badugu, zenbait gai ondo "babestu" behar dira herritarren borondatek.



HERRI GALDEKETA



denda:


Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^o Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis
tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solnu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelin Soratu, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basoetxe auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

KABI Patxieta Etxezarreta, 16
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

Iñigo **GARCIA**

BI TXIRULA PELIKULAREN ZUZENDARIA

ELKARRIZKETA

“Pelikula
baten
kontestuan
bizitza erreal
sartzen saiatu
naiz”

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Arkitektoa lanbidez, Iñigo Garcia Big Boy taldeko kidea ere bada (bereak dira abestien hitzak) eta zenbait film labur ere zuzendu ditu. *Bi txirula* da idatzi eta zuzendu duen lehen film luzea. Pelikula amaitzeko, soinu eta kolore lanak egitea falta zaio. Edo hala izango delakoan dago.

Buruari buelta asko ematen dizkion pertsona da Iñigo. “Kostatu zait gaur lo egitea”, onartu du grabagailua martxan jarri aurretik. Elkarrizketa hau egiteko hitzordua jarri genuen martxoaren 29an, eta egun bat lehenago Tabakalera zentroan zineaz arduratzen den pertsonari erakutsi zion pelikula. “Esan zidan gustatu zitzaioela pelikula eta halakorik ez zegoela euskal zinemagintzan. Baina, erritmo azkarragoa izatea gustatuko litzaiokeela esan zidan. Horretarako, proba bezala, iraupena laburtzeko esan zidan. Eta horrekin nabil bueltaka”. Elkarrizketa San Jose kalean dagoen Non Arkitekturaren bulegoan egin dugu, kafe huts batzuk lagun ditugula.



Zenbait film laburren egilea zara eta hau duzu zure lehen film luzea. Pauso handia da hau.

Big Boy-ren dokumentala egin nuen [lehen diskoarekin batera DVDan argitaratu zuten film laburra], gidoia idatzi nuen eta ez nekien zenbat iraungo zuen. Lehen montajea egin nuenean, moztu aurretik, 40-45 minutuko iraupena zuen. Hor ikusi nuen ez nengoela film luze batetik hain urruti. Gero, Tabakalera zine garaikideko zikloak eman dituzte eta pelikula horien zuzendariak ere etorri izan dira. Zuzendari horiek zioten pelikulak egiteko 15-16 egun behar izan zituztela. Diruaz ere hitz egin zuten eta batek esan zuen 12.000 euroekin egin zuela berea; beste batek, berriz, 8.000 euro behar izan zituen. Tarte horretan zebiltzan eta proiektuak duinak ziren. Ikusi nuen proiektuak atera zitezkeela. Ilusioa ere banuen eta animatu nintzen. Pixka bat ero-eroan izan zen, pentsatu gabe zer aterako zen. Lehen irudi batzuk grabatu nituen, probatzeko, baina pentsatuta, agian, gero pelikulan sartuko nituela, eta hor ikusi nuen oinarri bat bazegoela eta pertsonaiek ere funtzionatzen zutela.

Zein dira aktoreak?

Jon Tronbon Elizaldi eta Iker Hazas. Jon nire tronboi irakaslea da. Berpizkundeko musikaren disko bat atera zuen (*Berpizkundeko euskal musika*, 2014) eta egin zioten elkarrizketa batzuk entzun nituen irratian. Kristorenak ziren. Grazia du eta pentsatu nuen Ikerrekin batera bikoteak funtzionatuko zuela. Gidoi ireki bat izatea nahi nuen, beraien harremana gartzeko. Gero, pelikula ixten joan da. Grabatzea oso zaila izan da: Jonek posible zuten asteburuetan eta ostiraletan, egun horretan klaserik ez duelako; Ikerrek, berriz, asteburuetan ezin zuten, lana zuelako. Ostiralak eta opor egunetan bakarrik neukan grabatzea. Pentsatu izan dut denbora gehiago joan zaidala produkzioan, denon egutegiak bat egiten, errodajeen bertan baino. Gerrilla moduan izan da, bertigo handiarekin. Loka-

lizazioak garbi nituen eta estruktura batzuk ere idatzi nituen. Baina elkarrizketak grabazioa baino pixka bat lehenago idatzi nituen. Canfrancen (Huesca, Aragoi) grabatu behar genuen eta zer egunetan errodatuko genuen lotutakoan, hara joan nintzen. Bi egunetan egon nintzen pentsatzen zer kontatuko nuen. Hurrengo egunetan grabatu behar genuen, baina ez nekien zertaz hitz egin behar zuten.

Pelikula askotan gidoilaria errodajeen egoten da, gidoia berridazten.

Bai, pixka bat horrela izan da. Ondo egon da; nik ongi pasa dut. Pelikula batzuen produkzioa eta tamaina ikusita, askotan beldurra izaten duzu.

Bi txirula du pelikulak izenburua. Zer kontatzen duzu?

Es dut *spoiler* bat egin nahi... Ez dira gauza asko gertatzen. Bi pertsonak

egiten duten bidaia kontatzen da, leku hobe baten bila, kontestu atemporal batean.

Produkzio hau zuk zeure kabuz egin duzu? Zure poltsiko-tik ordainduta?

Laguntzak izan ditut. Txipiren [Jose Luis Barredo] Berde Produkzioak grabazio guztia ez, baina ehuneko handi bat egin du; beste grabazioetarako beste pertsona batzuk kontratatu ditut. Audioko lanak batzuetan anaia Jonek egin ditu, baina beste batzuetan, anaia aktore sartu dudanez [barrea ateratzen zaio], beste bat ekarri behar izan dut.

Teknologia digitalak ikaragarri merketu du zinea egitea. Zurea bezalako proiektu batean berebiziko garrantzia izango du, ezta?

Bestela ezinezkoa izango litzateke. Aurrekontu bat nuen eta beste batzuentzat gutxi izango bazen ere, niretzat asko zen. Lokalizazio bakoitzean grabatu behar nuena ondo pentsatuta nuen, agian pelikularen espirituaren aurka joango bazen ere. Preparatu gabe joan eta probak egiten hasi izan banintz, agian ezin izango nuen amaitu grabatzeko izan ditudan 15 egun hauetan. Beste pelikula bat aterako litzateke, agian hobea, agian okerragoa.

Zuri ordu eta erdikoa atera zaizu. Tabakalerako ardura-dun horrek laburtzeko proposatu dizu.

Bai. Atzo Tabakalerako arduradun honekin hitz egin nuen, esan zidan berak proba bat egingo zuela. Ez zidan esan pelikulak dagoen bezala ez zuenik funtzionatzen. Zine asko ikusi du eta zioen gustura ikusiko zuela halako pelikula bat formatu motzago batean. Esan nion nik ideia bat nuela eta

Filmografia

Laburmetriak:

2004- *4* Zuzendariak: Iñigo Garcia / Jose Luis Barredo

2007- *Berde* Zuzendariak: Iñigo Garcia / Jose Luis Barredo

2008- *Andarika, kilker eta emakumeei buruzko gogoetak* Zuzendariak: Iñigo Garcia / Jose Luis Barredo

2008- *Putz* Zuzendaria: Iñigo Garcia


2009- *Clark eta Boris* Zuzendaria: Iñigo Garcia

2011- *Errusia* Zuzendaria: Iñigo Garcia

2014- *Big boy dokumentala* Zuzendaria: Iñigo Garcia

Film luzea

2017- *Bi txirula* Zuzendaria: Iñigo Garcia



gero, montajea, irauin behar zuena irauingo zuela. Ordubate izan edo hiru ordu izan. Inork ez dit dirurik eman hau egiteko eta alde horretatik askatasuna dut. 85 minutuko iraupena du eta berdin zait 65 minutura jaiste. Baina, hori bai, helburu batekin. Eta helburu hori ez badu...

Zenbait film labur egin dituzu eta Big Boy-ren dokumental faltsua ere bai. Han umore 'arraro' mordoia zegoen, nolabait definitzeagatik, surrealismo hitza urardotuta da-goelako. Bide beretik al doa lan hau?

Laburmetriak egitea baino gutxiago kostatu zait pelikula hau egitea. Pelikulan libreago sentitu naiz. Beste erritmo bat dauka, hori argi dago; erritmo motel bat dauka eta gero, umore aldetik, dialogoak bide horretatik doaz. Badago umore hori. Batzuetan pasatu egiten naizela uste dut eta hemen agian pixka bat eutsi diot neure buruari? Bada, agian bai.

Big Boy-ren dokumental faltsu hark, umore aldetik, frenorik ez zuen.

Hura alde batetik bestera zihoan. Hau bada eutsiagoa, baina baditu halako elementu batzuk. Kendu edo ez kendu, zalan-zak izan ditut. Batzuen iritzi funtzionatzen zuen eta besteen ustez ez. Dorrioni [Eneko Dorransoro] erakutsi nion eta esan zidan hori ni nintzela, umore hori kenduta pertsonalitatea galduko zuela. Hori nik ere ikusten nuen eta zalantza horrekin ibili naiz. Pixka bat zuhurragoa izango da, zertxobait garbiagoa ere bai, agian, baina hau da niri ateratzen zaidana, baita gustatzen zaidana ere. Batzuetan pasatu egiten naizela? Bada, agian bai, ez dakit. Perspektiba ere galtzen da. Hasieran grazia egiten zidanak orain, agian, ez dit egiten, baina gogoratu behar duzu une hartan zerbait horrek grazia egin zizula.

Prozesua luzea izan delako galtzen da, agian, perspektiba hori?

Baina ez da luzea izan. Atzo Tabakalera hizketan, galdetu zidan ea zenbat denbora neraman pelikula muntatzen eta esan nion urrian hasi eta Gabonetarako amaitu nuela. Berak esan zidan lagun batzuk hiru urte zeramatatela beraien lanak muntatzen. Ni ez naiz hiru urtez muntatzen arituko. Azkenean bukatu egin behar da, bestela zoraturako zara eta.

Aurreko laburmetrietan bezala, hemen ere inguruko jendea izan duzu.

Bai. Plano batzuetan txalupa bat eraman behar zen eta hor ere Zumaiko lagun batzuk izan ditut: Josu Uranga, Iosu Aizpurua, Beñat Ibaeta eta Julian *Otola*. Zumaian lau egunetan grabatu genuen jarraian eta hori ere polita izan zen. Inoiz ez dut horrela lan egin. Film laburretan egun bat edo bi egiten nituen jarraian, baina hemen lauzpabost izan ziren. Esperientzia ondo atera zen eta eguraldiak ere lagundu zuen. Lainotuta zegoen eta hori argazkirako oso ondo zegoen. Txipik esan zidan sekulako zortea izaten ari nintzela. Azken egunetan plano bat grabatu behar genuen eta euri tantak erortzen hasi ziren. Kandido Urangak hitz batzuk esan behar zituen

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



MARGARI *Iruta-denda*

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

CROISSANTERIA

pizak
hanburesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel: 943 861 691



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com



**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEREN
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura
678 875 652
643 143 093
tur@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Faxadak
Telatutak
Etxebiztan
(Bakarkak, banuzia)
Industrian mantentzeak
Mota gutxiakoa igelbortza lanak

Etxebiztan inspektio teknikoa (ITE)
Zerifikatu energetikoa
Faxaden diseinu eta aholkularitza
Etxebiztan berrantolaketa
Mota gutxiakoa proiektak

**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbi@kirolak.euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 08 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beceide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Primavera
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Hodilloa)
Saltzirak, oilaskoak...
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

LEHEN FILM LUZEA

Iñigo García, Non Arkitekturaren bulegoan, pelikula errepasatzen.



eta perfektu egin zuen; lehen hartualdian grabatu genuen. Ondoren euria hasi zuen.

Ezagutzen duzun jendearekin lan egiteak segurtasuna emango dizu.

Niri bai. Oso lotsatia naiz eta asko kostatzen zait ezagutzen ez dudan norbaitekin lan egitea edo zerbait eskatzea. Ondo ezagutzen ditudan jendearekin lan egite horrek badu abantaila bat eta da badakitela zer eska dezakedan. Errodajera joan eta hori, behintzat, gaindituta izatea garrantzitsua da. Gero, beste gauza batez konturatu naiz, eta da errodajeak oso gorrak direla. Luze joaten da eta zaila da dena kontrolpean izatea, dena ondo irteteko eta inor ez haserretzeko. Jendea ezagututa, behintzat, hori konponduta duzu. Alde txarra ere badu, konfiantza handiegia dagoela!

Iker eta Jon, Jon eta Iker. Zure 'bikote bitxia' al da?

Badago halako kontraste bat bi pertsona horien artean. Jon oso hitzuna da; Iker, berriz, isila. Izaera aldetik oso desberdinak dira, baina ondo konpontzen dira. Nik uste funtzionatzen dutela. Banekien irudi aldetik Ikerrek funtzionatzen duela. Ez dakit zer duen, baina kamerak maite du.

Zer erreferentzia edo zer lanek inspiratu zaituzte lan hau egiteko?

Erreferentzia garbiak Albert Serra kataluniarra eta Lisandro Alonso argentinarra dira. Naturan zehar doazen pertsonen pelikulak gustatzen zaizkit. Gero, Serraren dialogoetan oso identifikatuta sentitzen naiz. Bere zinean funtzionatzen zutela ikusi nuen. Situazio batzuk nola konpontzen dituen ikusi dut, baita planoak nola lotzen dituen ere. Zortzi bat pelikula nituen karpeta batean, denak bide batetik oinez doazen pertsonen ingurukoak. *Road movie*-en antzekoak dira, baina oinez. Nik hori egin nahi nuen, baina nire pertsonaiekin, Jonekin eta Ikerrekin, eta nire istorioarekin. Pelikula haiek hipnotikoak dira, amets batean sartuta egongo balira beza-

lakoak dira; nirea, zentzu horretan, gehiago da abenturazko bat bezala, baina abenturarik gabea. Erronka batzuk badituzte bidean. Akziozko pelikula izango litzateke, baina akziorik gabe! [barreak] Batzuetan absurdoak diren egoerekin ere egiten dute topo. Konbertsazio absurdoak ere badituzte. Bizitza errealean entzuten diren dialogoak dira, baina pelikula baten barruan absurdoak bihurtzen direnak. Pelikula baterako une indartsuak hartzen dituzu. Horri buelta ematen diot: pelikula baten kontestuan bizitza erreala sartzen saiatu naiz eta, horrekin, umorea sartzen ere bai.

Pelikula Gabonetan muntatu zenuela esan duzu. Gaur egun zer fasetan dago?

Atzo entzundakoaren ondoren, ez dakit! [barreak] Esan didan hori probatuko dut asteburu honetan eta ikusten badut ez nauela konbentzitzen, dagoen bezala utziko dut. Soinua egiten ari denarekin hitz egin dut, anaiarekin eta Txipirekin ere bai eta esan didate dagoen bezala uzteko. Baina Jonek ulertzen du frogara hori egin nahi izatea, alde batera uzteko bada ere. Bestela, printzipioz nahiko bideratuta zegoen, bai audioa, baita kolorea ere. Bi hilabetetan edo bukatzeko asmoa nuen, baina orain ez dakit.

Eta behin bukatzen duzunean?

Ba hori ere ez dakit [barreak]. Banatzaile bat lortzeaz hitz egin nuen, baina iruditzen zait pelikula oso pertsonala dela eta merkaturik ez dagoela halakoentzat. Pelikula jaialdietan mugituko zuen norbait nahiko nuke, horrek ere lan handia eskatzen du eta. Laburmetraiekin ibili nintzen lan horiek egiten eta ez dakit energiari dudan horretan hasteko. Iruditzen zait figura hori ez dudala aurkituko. Pentsatuko dut ea non ematea dagoen pelikula hau. Distribuzio aldetik disko batekin errazagoa da: Interneten jartzen duzu eta mugitzen da. Pelikula batekin desberdina da. Interneten ikus daiteke, baina justu pelikula hau ez dut uste han ikustekoa denik. Niri pantailea handi bat eskatzen dit. ■

Talentu gazteak **loratzen**

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ainhoa Urteaga eta Maria Martinez youtubera igo dituzten bideoengatik egin dira ezagun. Lehenengoa piano jolea da eta bigarrena abeslaria. Egun bakar batean milaka bisitaldi izan dituzte haien bideoek. Argi dago talentua dutela.



Gazteak dira Ainhoa Urteaga eta Maria Martinez. Lehenengoak 18 urte ditu eta unibertsitatean dabil magisteritza musikala ikasten. Maria, aldiz, urtebete gazteagoa da eta Batxilergoko bigarren maila amaitzen ari da. Biek maitate dute musika, eta arrakastak ezustean harrapatu baldin baditu ere, lanean jarraitzeko helburua dute. Betiere oinak lurtean, ametsentzat lekutxo bat uzten.

Musikarekiko zaletasuna txikitatik dator Ainhoari. Kuriositate moduan, erdi barrez kontatu du gurasoak herriko bandan ezagutu zutela elkar. “Gurasoek erakutsi digute musika maitatzen, eta hiru ahizpak bidali gaituzte pianoa ikastera, bandaren kontzertuak ikustera...”, aipatu du.

Mariari ere umeratik gustatu izan zaio abestea, baina inoiz ez jendaurrean. Etxeko gelako lau hormak izan dira bere babesleku urte hauetan guztietan. “Gurasoen aurrean ere lotsa ematen zidan, baina behin aitak entzun eta ona nintzela esan zidan. Orduan, gehiago soltatu nintzen eta kantatu klaseak hartzera animatu ninduten”, esan du.

Ainhoa Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan zegoela hasi zen Josefina Azpeitiaren akademian pianoa jotzen ikasten. Baina bakarka jotzea asko gustatzen ez, eta taldean jotzeko egokiagoa zen beste instrumentu batekin hasi zen aurrerago. “Aitak bombardinoa jotzen du, eta hark konbentzitu ninduen nik ere hori jotzeko. Orduan bandan eta txarangan ere jotzen hasi nintzen”, esan du. Egun, unibertsitateko ikasketak Leioan egiten dabil, eta, horren ondorioz, Bilbora joaten da, piano klaseak hartzera.

Mariak, abesteaz gain, gitarra jotzen ere badaki. Auto-didakta da, gainera. Aitak, gaztea zenean, gitarra jotzen omen zuen, eta musika talde bateko kide ere ba omen zen. “Youtubeko tutorialak ikusten hasi nintzen gitarra jotzen. Behin nota batzuk jotzen ikasi nuenean, aita ere laguntzen hasi zitzaidan”, aipatu du.

Estilo finkorik gabekoak direla kontatu dute biek. Barrutik ateratzen zaiena adieraztea gustatzen zaiela. Emozioak azaleratzea dute helburu eta horretarako ari dira lanean. “Pianoaren teknika lantzeko abesti klasikoak eta abar erabiltzen dira, baina neure kasa nabilenean, nire estiloa erabiltzen dut. Bakoitzak bere estiloa markatu behar du, eta horretarako estilo ezberdinak hartu eta zure propioa egiten saiatzen zara”, esan du Ainhoak. Maria ados dago Ainhoarekin. Gustatzen zaizkion abestiak hartzen ditu oinarritzat eta bere estiloa ematen saiatzen da. Normalean, balada eta erritmo lasaia duten abestiak izan ohi dira. “Horiez gain, modan dauden abestiak eta parrandan jartzen dituzten horiek ere jotzen ditut gitarrarekin”, aipatu du.

Youtube, eskaparate itzela

Maria Donostiara joaten da asteen behin kantatu klaseak hartzera. Irailen hasi zen eta oso gustura dabil. “Emilio Azkarateren estudioa joaten naiz. Garaje moduko bat du, eta han dauka jarrita estudioa”, kontatu du. Lehenengo klaseetan teoria landu zutela gogoratu du. “Diafragma-



Ainhoa: “Bertsioak egitea, niretzat, oroitzapen horiek zure erara moldatu eta pertsonalizatzea da, eta nik atsegin dut”

ren erabilpen egokia, arnasketa teknikak... Ohitura txarra nuen, ezarritik abesten nuen, eta, pixkanaka, teknika hobetzen ari naiz”, aipatu du. Orain abestiak grabatzen aritzen da. “Emiliok gomendatzen dit zer kanta abestu, baina, normalean, nik esaten diot zer kanta nahi ditudan grabatu. Klase batean edo bitan grabatzen dugu, eta hurrengoan beste batekin hasten gara”, amaitu du.

Hain zuzen, estudioa joaten hasi zenetik hasi da Youtubera bideoak igotzen. Irakasleak kanal propioa du, eta Mariak harekin grabatu zuen lehenengo abestia igo zuen. “Esan zidan nire kanal propioa irekitzeko eta hala nik nahi nituen audioak igotzeko aukera izango nuela. Halaxe egin nuen. Hasieran, argazki bat, nire izena eta audioa zuen bideoak igo nituen, alegia, irudirik gabekoak. Baina igo dudun azken bideoa bideoklip itxurakoa izan da, eta bisiten aldetik izugarritzko goraka izan du”, kontatu du. Jesse & Joyren *Corre* izeneko abestiaren bideoklipa egin du eta Unai Aranbarri izan du grabatzaile eta muntatzaile lanetan. “Hasierako bideoek, irudirik gabekoak, 400 bisitaldi edo izan zituzten; bideokliparekin, berriz, 5.000 baino gehiago izatera pasa da”, nabarmendu du.

Ainhoa pianoa azterketa prestatzen ari da. Asteen behin joaten da klasera eta han azterketarako prestatu behar dituen abestiak errepasatzen ditu. “Abesti horiek etxean ikasten ditut eta klaseetan akatsak zuzendu eta irakas-



Maria:
“Etorkizunean
nork daki, agian
apuntatuko naiz
casting batera,
baina oraindik
ez dut neure
burua ikusten”

learen gomendioak jasotzen ditut. Horiez gain, diktakerak, erritmoak, eskalak eta orokorrean lengoia musikala lantzen ditut”, esan du.

Youtubeko bideoekin urria aldean hasi zen. Hasieran, pare bat abesti grabatu zituen mugikorraren bidez, nahiko kalitate

eskasean. Baina lagunek gomendatuta eta horien laguntzarekin grabazio hobea egin zuen hurrengorako. Hala, bere lehen arrakasta Huntza taldearen *Aldapan gora* abestiarekin lortu du. Gaztea Irratitik ere jaso zuen elkarrizketa egiteko gonbidapena. “Bideoa igo nuenetik ez ziren pasa 24 ordu ere eta irratiko deia jaso nuen”, gogoratu du. Lehenengo bideo hori Paula Manzisidorrek grabatu zion. Berriki bigarren bideoa igo du, hain zuzen, Luis Fonsiren *Despacito* abestia eta horretarako Malen Trenadorek laguntza izan du. “Mariak esan duen bezala, bideo on batek bisita kopuruari dagokionez, alde ederra dakar. Nire azken bi bideo horiek ere hori islatzen dute. Argi ikusten da ikusleari gehiago gustatzen zaiola zerbait bisuala ikustea. Gainera, nire kasuan bezala, musika zerbait instrumentala denean, alegia, ez dagoenean letrarik, askoz azkarrago aspertu daiteke publikoak”, esan du.

Youtube eskaparate itzela da bakoitzaren gaitasunak erakusteko, eta ongi aprobeztatzen jakin dute. Gainera, bideo horiek beste hainbat sare sozialetan ere izan dute zabalkundea. “Bideoak egin nuenean, Unai komentatu zidan sare sozialen bidez zabaldu egin behar genuela. Hala, Instagramen hasi ginen kuadrillakoei eta beste lagunei bidaltzen, beraiak ere beraien kontuetan jartzeko. Gero, Facebooken ere partekatzen hasi zen jendea, Jon Urbietak baleike.eus-en ere jarri zuen, eta hala, batetik bestera, asko zabaldu da. Azkenean, gazte guztiok gaude konektatuta eta zabalkundean lagundu egiten du horrek”, esan du Mariak.



orra
taberna • jatetxea
bar • restaurante

- Merendolak, Txokolatadak
- Menu zehaztuak (Talde Handiak)
- Sagardotegia (Ostiraletan 26€)
- Plater Konbinatuak
- Oilasko Erreak, baita eramateko ere
- Ostiraletan Pintxo-Pote
- Kintadak, santelmoak, koadrilak, etab
- Ogitartekoak
- Karta

Basusta bidea, 16
Tel. 943 143 582

Bertsioetatik abesti propioetara

Oraingoz bertsioak egiten hasi dira eta horretan jarraituko dute. “Azkenean bertsioak dira bai, baina gure modura eginda; beraz, gure pieza bat sortzen da eta pertsonalagoa da, noski”, aipatu du Mariak. “Abesti jakin hori zure bilakatzen duzu, ez dago dudarik. Abesti bat hainbat arrazoiengatik gustatu ahal zaizu: doinuagatik, sentimendu edo oroitzapenak sorrarazten dizkizulako... Bertsioak egitea, niretzat, oroitzapen horiek zure erara moldatu eta pertsonalizatzea da, eta nik atsegin dut. Norberari barrutik ateratako zerbait da, eta badakizu zuk bezala ez duela inork egingo”, jarraitu du Ainhoak.

Inspirazioaren arabera, azkarrago edo polikiago bertsionatzen ditu abestiak Ainhoak. *Aldapan gora* abestia, esaterako, ordubetea muntatu zuen. Durangoko azokatik bueltan, bazkalostean piano aurrean jarri eta bertsioa atera zitzaion natural-natural. Beste batzuetan, aldiz, pixkana egitea tokatu zaio, zatika. Ainhoarentzat zailena ez da abestiaren melodia ateratzea. “Okerrena da melodia hori betetzea, monotonia ez izatea lortzea eta estilo ezberdinak abestiaren estiloaren barnean sartzea”, esan du. Mariaren kasuan, maketa baten gainean grabatzen du abestia, eta bere ahotsak dituen doinu, melodia eta detaileekin egiten du bertsioa.

Egun aski ezagunak dira talentua bilatzen duten telebistako konkurso programak, *talent show* izenarekin ere ezagunak. Espainiako kateetan ikusi daitezke, eta azkenaldian baita ETB1en ere. Bietako inor ez da aurkeztu inoiz programa horietara, nahiz eta Maria, adibidez, askotan animatu izan duten. “Beti izan dut lotsa izena emateko. Ez naiz eszenatoki baten gainean ikusten pertsona askoren aurrean. Youtuben bideoak igotzeko ere lotsa nuen, eta begira, azkenean animatu naiz, eta, gainera, ez dakizu zenbat pertsonak ahal duten ikusi zuk igotako hori. Etorkizunean nork daki, agian apuntatuko naiz horrelako casting batera, baina oraindik ez dut neure burua ikusten. Gainera, asko dut hobetzeko eta ikasteko”, adierazi du Mariak.

Ainhoaren iritziz, programa horietan parte hartzean publikoaren eta epaimahaiaren kritikak entzuteko prest egon behar da. “Argi dago ikasteko dugula oraindik. Biotako inork ez du musika ikasketarik, eta, orduan, milaka kritika egin ahal dizkigute. Errespetua ematen du”, esan du.

Bertsioak egiteaz gain, sormenerako tartea ere hartzen dute biek. Mariak, esaterako, bost bat kanta propio ditu idatzirik dagoeneko. Baina horietako bat kenduta, besteak ez ditu jendaurrean abestu. “Abestu dudan bakarra nire amonari idatzi niona izan da. Orain dela 3-4 urte hil zen eta kanta hori abestu nion jendaurrean. Bost horiez gain, momentu batean



idatzitako beste batzuk ere baditut, txorakeriak. Baina forma eman behar zaie abesti horiei eta asko landu behar dira. Hala ere, esan behar dut badudala sorkuntzarako gogo hori”, esan du.

Ainhoak ere baditu hiru abesti. Arduratsu jokatu nahi du, ordea, kontu hauekin. “Kontuz ibili behar duzu zer igotzen duzun Youtubera. Zerbaite *pegadizoa* edo gustagarria egiten baduzu, norbaitek ahal dizu hartu abesti edo doinu hori. Ez dut esaten niri gertatuko zaidanik, baina horrelako gauzekin kontuz ibili behar duzu. Abestia erregistratzeko aipatzen dute askok, baina ez dakit nola egiten den eta zenbat kostatzen den”, aipatu du.

Musika afizioa eta pasioa dute eta ahal dutena ikasten, sortzen eta egiten jarraitu nahi dute. Badakite ikasketak aurrera ateratzea dutela lehenetsua eta horretan ere buru-belarri dabilta. Familiartekoen laguntza dute, eta hori garrantzitsua iruditzen zaie. Zalantzarik gabe bideoak

igotzen jarraitu nahi dute, pixkanaka, presiorik gabe eta dute denboraren arabera. “Horrelako gauzak ez ditugu egin behar kanpoko jendeari gustatzeko. Musikaren helburua da azkenean emozioak sorraraztea. Musika batek pertsona baten barnera sartzea lortzen badu, sentimenduak sortzea, nahiz ona edo txarra izan, musikak bere helburua lortu du. Bideoak igotzearen zergatia, niretzat, behintzat, niri sortutako sentimenduak beste batzuei sortzea izan da”, adierazi du Ainhoak.

Maria ere iritzi berekoa da. Askok aipatu diote Youtuben bideoak igotzeko eta bisitaldi asko jasotzeko dirua irabaztea ekar dezakeela, baina berak ez du horregatik egiten. “Abestea gustatzen zait eta nire afizioa jendearengana zabaltzeko nahi dut. Lehen lotsa ematen zidan horrek, baina orain erakusteko go-go daukat. Gainera, jendeari gustatzen bazaio, niretzat askoz ere hobeto”, amaitu du. ■

Barrutik ateratzen
zaiena adieraztea
gustatzen zaie,
eta emozioak
azaleratzea dute
helburu

APIRILA-MAIATZA

DEIALDIAK

Apirilak 21-30 San Telmo jaiaik (egitaraua 4. eta 5. orrialdetan)

Maiatzeko larunbatak: *Maiatza Dantzan.*

Egunero Geoparkeko bisita gidatuak: info+ www.geoparkea.com

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Apirilak 7-24

Itsasoko argia: azkeneko farozainen historia

+ Zumaia Institutuko txanala zaharberriua

Apirilak 28 - maiatzak 14

Olatz Goiburu + Pelex

Maiatzak 17- ekainak 4

Forondako lanak: Zeramika + egur taila

APIRILA

6, osteguna

18.30 Komentuan, Musika eskolaren entzualdia.

22:00 Aita Marin, zine forum: *Captain Fantastic*. Zuz.: Mat Ross,

7, ostirala

20:00 Itzurun tabernan, kontzertua: Marlik.

22:00 Aita Marin, antzerkia: *Jainko basatia*, Txalo produkzioak.

8, larunbata

11:00 Algorri Interpretazio Zentroan tailerra: *Dinosaurioak ezagutzen!* (6-9 urte, doan).

19:00 Komentuan, kontzertu sakroa: San Pedro abesbatza + Xatz Eskifaia.

19, asteazkena

19:00 Oxford aretoan, dokumentala: *Luz de mar, la historia de los últimos fareros.*

20, osteguna

17:30 Oxford aretoan, haur antzerkia: *Zirriborro*, Badut taldea.

22:00 Aita Marin, zine forum *Frantz*. Zuz.: François Ozon.

28, ostirala

19:30 Forondan, Guneren solasaldia: *Espiritualidad y feminismo. Estructuras machistas de poder en las religiones.* Hizlaria: Mari Jose Arana.

MAIATZA

4, osteguna

22:00 Aita Marin, zine forum: *Fuego en el mar*. Zuz.: Gianfranco Rosi

5, ostirala

22:00 Aita Marin, antzerkia: *Mami Lebrun*, Xake produkzioak.

6, larunbata

10:00 Maiatza Dantzan: Astindu Eguna (Masterclass + bazkaria).

11:00 Algorri Interpretazio Zentroan, tailerra: Fosilen tailerra (8-12 urte, doan).

12, ostirala

22:00 Aita Marin, antzerkia: *Sweeny*, Eromen produkzioak.

13, larunbata

Maiatza Dantzan: Pintura eta dantza tailerra.

18, osteguna

22:00 Aita Marin, zine forum: *El viajante*. Zuz.: Asghar Farhadi.

20, larunbata

18:30 Odietan. Maiatza Dantzan: Dantzaran (umeak + helduak).

21, igandea

12:00 Aita Marin, haur antzerkia: *Baserrian amets*, Eidabe.

27, larunbata

22:30 Ondartxon, Maiatza Dantzan: Astindu + Zumaia Musika Banda.



Zalla
 • plater konbinatuak
 • ogitartekoak
 • oilasko erreak
 Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
 E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com
 BASOIA 12
 20750 ZUMAIA
 Tel: 943861018 / Fax: 943016175

Zumaia Hotela
Jatekera Kalitategia
 Alai suzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
 ZUMAIA MOTOR S.L.
 José Rey Alfaro Gerente
 Santxo Auzoa, 22
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
 e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

Txomin Agirre kalea 6,
 750 Zumaia, Gipuzkoa
 T. 943.143.057
 www.eduoptika.com
E D U
 ZUMAIARD
 OPTIKA
 RPS 18/16

Santelmoak 2017

Ondo pasa jaiak!!



Apirilean

Zumaia txartela erabilita, etxeko gauzen eta oparien dendetan gastatzeko 50 €-ko baleak lor ditzakezu.



Algorri lurridenda
Ardantzabide altzariak
Basusta Loradenda
Begoña
Egoki erlojudenda
Ekin Elektrizitatea
Endañeta Zumaia
Ertz Informatika
Kuttun
La Mercería Idoiaren denda
Txalaparta
Xirula
Zipi Zape



Zumaia Udala



CAJA RURAL

ZU, PAREGABEA

GURE BATXILERGOA, APARTA

Talde txikiak

Aukera guztiak

Espazio eta instalakuntza abangoardistak



Konfiantzaren
pedagogia

M&J Ikastetxea

Maiatzaren 2tik 5era bilera pertsonalizatuak eskatzeko aukera

943 86 04 62 - www.mariatajose.eus - ikastetxea@mariatajose.eus